

UDALAREN OSOKO BILKURA

2011ko abenduaren 19ko aparteko bilera

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO

ZINEGOTZIAK:

Euzko Abertzaleak

M^a CARMEN URBIETA GONZÁLEZ

JON PELI LAZKANO ALZAGA

AINARA GUZMÁN URRUTIA

JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA

IDOIA BLASCO CUEVA

IÑAKI GOIKOETXEA GORDO

IKER AGIRRE BARTZENA

DIONISIA ANDRES BLANCO

Bildu:

IRUNE BILBAO GAYANGOS

JOKIN UGARTE EGURROLA

ELIXABETE MORAL ANES

ARKAITZ FULLAONDO ELORDUY-ZAPATARIECHE

Euskal Sozialistak:

SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO

ALFONSO LÓPEZ AREVALILLO

NEKANE JIMÉNEZ FERNÁNDEZ

JUAN CARLOS MARTÍNEZ LLAMAZARES

Partido Popularren udal taldea:

XABIER OLABARRIETA ARNAIZ

FERNANDO PINTO PALACIOS

M^a CARMEN SÁNCHEZ SEQUEROS

EB-B:

ISABEL DOLORES GARCÍA GARCÍA

EUSKARA-ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI JN.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIA GUTIERREZ AND.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

JAVIER BOLINAGA LEKUE JN.

Leioako Udaletxean, bi mila eta hamaikako abenduaren hemeretziko zazpiak eta bost direnean, Elizate honetako Udal Bilkura batu da, **ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO alkate-udalburu jaunak** zuzenduta eta ertzean jaso ditugun zinegotzi jaun-andreak bertaratuta, (Udal Korporazioko kideen gehiengo legala osatzen dute), **JAVIER BOLINAGA LEKUE behin-behineko idazkari nagusi jaunaren** laguntzarekin; ohiz kanpoko saioan biltzeko batu dira; saiorako aurretiaz Alkatetza Udalburutzak deialdia egin du, apirilaren 2ko Toki Erregimeko Oinarriak Arautzen dituen 7/85 Legearen 46.2.b) artikulua, apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilearen 48.2 artikulua eta azaroaren 28ko Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Jardunaren Araudiaren 78.2 eta 80. artikuluen arabera, 2568/1986 Errege Dekretuak onartu zuena.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

1.- KREDITUAK ALDATZEKO 12/2011 ESPEDIENTEA, 2010EKO EKITALDIKO KONPROMETITU GABEKO DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN PENTZURA: Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2011ko abenduaren 13ko 148. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2011ko ekitaldiko aurrekontuen bilakaera kontuan hartuta, gai horretako legeko aurreikuspenekin bat etorriz, beharrezkoa da kredituak aldarazteko espedientea tramitatzea, udal zerbitzuen beharrezko aurrekontuan hasieran aurreikusitako gastu-aurreikuspenetara egokitzeko.

Aztertu da udal kontu-hartzailearen txostena, Kredituak aldatzeko espediente honek sail batzietan eta besteetan artatu behar dituen gastuak aztertzen dituen. Kredituen aldarazpena tramitatzeari dagokionez, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Errege Dekretuak eta berau garatu duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuak

hainbat espediente ezartzen dituzte aurrekontua garatzen deneko ekitaldiko diru-sarrera eta gastuetara moldatzeko. Era berean, Bizkaiko Lurralde Historikoko araudi espezifikoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta gainerako foru-dekretuek ere kredituak aldarazteko espedienteak aurreikusi dituzte.

Erantsitako taulan zehazten den bezala, data honetan eskuragarri dagoen Diruzaintzako gerakina, kredituak aldatzeko espediente honetan ageri dena, 11.179.539,77 euro da.

Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak onesteko eskumena udalaren osoko bilkurari dagokio, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 177.2. artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 EDren 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren arabera, aurrekontuek dituzten izapide eta betekizunei eutsita. Kredituak aldarazteko espediente horiek onesteko quorum berezirik ezarri ez denez, nahikoa izango da aldeko botoen gehiengo sinplea (apirilaren 2ko 7/1985 Legea).

Aldaketa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren toki-erakundeen aurrekontuari buruzko abenduaren 15eko 10/2003 Foru Arauaren 34.2 artikuluan arabera finantzatuko da, diruzaintzako gerakin garbiarekin batera, eta aipatutako Foru Arauaren 15, 17 eta 18. artikuluan ezarritako Aurrekontu Orokorretako informazioari, erreklamazioei eta publizitateari eta errekurtsioei buruzko arauak aplikatuko dira.

Horren ondorioz, eta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan xedatutakoa zein Leioako Udalaren Aurrekontu Orokorri buruzko Betearazpen Oinarrietan eta txostenean aipatzen den Foru Araudian ezarritakoa aintzat hartuta, kontu-hartzaileak uste du ez dagoela eragozpenik, 2011ko kredituak aldatzeko espediente hau onesteko.

Hona hemen partidak eta gehitu beharreko zenbatekoak.

KREDITUAK ALDARAZTEKO 12/2011 ESPEDIENTEA

KREDITU-ALDARAZPEN MOTA	KREDITUAREN JATORRIZKO PARTIDA	EUROAK	KREDITUAK JASOKO DITUZTEN PARTIDAK	EUROAK
			00400/22220/227/9900 Hiri inguruneko zaintza zerbitzua	52.000,00 €
			00500/42000/2110000 Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	6.000,00 €
			00500/42000/2270100 garbiketa	20.000,00 €
			00600/32350/2110000 Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	7.085,68 €
			00700/43230/2210100 Energia elektrikoa	97.548,59 €
			00700/44240/2270100 garbiketa	223.677,54€

Konprometitu gabeko gerakinaren pentzurako kreditu-aldarazpena	870/01 konprometitu gabeko gerakina	1.110.596,91 €	00700/22310/4200100 Suteen aurkako zerbitzua	5.866,11 €
			00700/43250/2279100 Beste enpresa batzuek egindako lanak	47.972,41 €
			00900/45360/226706/05 Gabonetako kultur ekintzak	60.000,00 €
			01000/46010/227/1200 kirolerako lanak	90.000,00 €
			01000/46080/2279900 Uda programa	75.000,00 €
			0100/46010/2279900 Hitzartutako zerbitzuak	10.231,18
			0100/46030/2279100 Beste enpresa batzuek egindako lanak	15.869,56 €
			0100/46010/2270100 Sakoneta garbitzea	10.345,84 €
			00800/55990/611300 San Bartolome birmoldatzea	289.000,00 €
			00800/55990/6090500 Bide publikoetako inbertsioak	100.000,00 €
	GUZTIRA	1.110.596,91 €		1.110.596,91€

Euskal Sozialistetak Juan Carlos Martínez Llamazares jaunak, Bilduko Irune Bilbao Gayangos andreak eta Alderdi Popularreko M^a Carmen Sánchez Sequeros andreak, Udal kontu-hartzailearen txostenaren kopia eskatu dute.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Udal kontu-hartzailearen txostenaren kopia bidaltzea Euskal Sozialistetak Juan Carlos Martínez Llamazares jaunari, Bilduko Irune Bilbao Gayangos andreak eta Alderdi Popularreko M^a Carmen Sánchez Sequeros andreak.
2. Euzko Abertzaleetako Idoia Blasco Cueva andreak, Batzorde honetako Buruak, Euzko Abertzaleetako Iñaki Goikoetxea Gordo jaunak, Euzko Abertzaleetako Dionisia Andrés Blanco andreak eta EB-Bko Isabel García García andreak aldeko botoa eman dute. Bilduko Irune Bilbao Gayangos andreak, Bilduko Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe jauna, Euskal Sozialistetak Juan Carlos Martínez Llamazares jauna, Euskal Sozialistetak Nekane Jiménez Fernández andrea eta Alderdi Popularreko M^a Carmen Sánchez Sequeros andrea, berriz, abstenitu egin dira. Hortaz, 2010eko konprometitu gabeko gerakinaren pentzura Kredituak aldarazteko 12/2011 espedientearen (irizpen honetan adierazitakoa) aldeko irizpena emango da.
2. Gai hau udalaren osoko bilkurari aurkeztuko zaio.

3. Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzazko Errege Dekretuan eta berari garatzen duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

Bilduren udal taldeko Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe jaunaren euskarazko hitzen laburpena:

Esan nahi dut guk ez genuela aurrekontuetan esku hartu eta ez dugula gai hori ondo ezagutzen; beraz, abstenitu egingo gara.

PPren udal taldeko Carmen Sánchez Sequeros andrearen hitzen laburpena:

Eskerrik asko, alkate jauna.

Funtsean bat gatoz gai honekin, aurrekontuko partida horiei aurre egin behar baitzaie; formekin, berriz, ez gatoz bat, eta ez gatoz bat gai honetan izan den aurreikuspenik ezarekin, ez eta aurrekontu-zorroztasunarekin ere. Izan ere, diru-kopuru aski handia da, eta uste dugu aurrekontuetan dagoeneko ezarrita egon behar luketela kontzeptu horiek, edo behintzat, zenbateko horietara iritsi behar izan dela. Hainbestez, Talde Popularra abstenitu egingo da.

Inork gehiago hitz egin ez duenez, alkate jaunak botazioa egiteko agindu zuen.

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko bilkurak, **gehiengoz**, aldeko hamalau botorekin (Euzko Abertzaleak-en bederatzi ordezkariak, EB-Bko ordezkaria eta Euskal Sozialisten lau ordezkariak) eta zazpi abstentziorekin (BILDUko lau ordezkariak eta PP Udal Taldeko hiru ordezkariak), 12/2011 zenbakidun kreditu-aldarazpenaren espedientea **onestea erabaki du**, 2010eko ekitaldian konprometitu gabeko diruzaintzako gerakinaren pentzura, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

Euzko Abertzaleak udal taldeko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jaunaren hitzen laburpena:

Carmen Sánchez Sequeros andreari esan zion arrazoia zuela, eta "argiago ezin diezazuket esan".

Eta arratsaldeko zazpiak eta hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OI
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARI NAGUSIA.